# DIGESTIO SISTEMAKO GAIXOTASUNEN DIETOTERAPIA

# AURKIBIDEA

1. DIETOTERAPIA ESOFAGOKO GAIXOTASUNEAN
1.1. ESOFAGITISA
2. DIETOTERAPIA URDAILKO GAIXOTASUNEAN
2.1. ULTZERA
2.2. GASTRITISA
3. DIETOTERAPIA HESTEKO GAIXOTASUNETAN
3.1. IDORRERIA
3.2. DIARREA
3.3. DIBERTIKULOSIA ETA DIBERTIKULITISA
3.4. KOLITIS ULTZERATIBOA
3.5. CHRONEN GAIXOTASUNA
4. GIBEL, BEHAZUN XIXKU ETA PANKREA EXOKRINOAREN DIETOTERAPIA
4.1. DIETOTERAPIA GIBELEKO GAIXOTASUNEAN
4.1.1. HEPATITISA
4.1.2. ZIRROSIA
4.1.3. GIBEL ENTZEFALOPATIA
4.2. BEHAZUN XIXKUAREN GAIXOTASUNEN DIETOTERAPIA
4.2.1. KOLELITIASIA ETA KOLEZISTITISA
5. PANKREA EXOKRINOAREN GAIXOTASUNEN DIETOTERAPIA
5.1. PANKREATITISA

# DIETOTERAPIA ESOFAGOKO GAIXOTASUNEAN

- ESOFAGITISA

# DIETOTERAPIA ESOFAGOKO GAIXOTASUNEAN

- Fisiopatologia: esofagoko mukosaren narritaduraren ondorioko hantura.
- Koadro arinak edo larriak (ultzera)
- **Seinale klinikoak**:
  - berrahoratzeak, errefluxu gastroesofagikoa
  - pirosia edo bihotzerreak, batez ere gaixoa etzanda dagoenean.

# ESOFAGITISA

- Hiato hernia
- Esfinter esofagikoaren laxotasuna (adibidez arrazoi hormonalengatik).
- Esfinterra heldugabea daukaten ume-edoskitzaileak.
- Haurdunaldia: sabeleko presioak errefluxua laguntzen du.
- Obesitate abdominala.
- Helicobacter pylori, aspirina eta hantura-kontrako botika gehiegi hartzea.

# Tratamendua

- Helburuak:
  - Mukosaren narritadura eta errefluxu gastrikoa aurrezaintzea eta eduki gastrikoaren narritatzeko gaitasuna txikitzea dira.

# Tratamendua

- Osagaiak:

Antiazidoak
Histamina-kontrako farmakoak
Kolinergikoak
Beste neurri ez-farmakologiko batzuk

  - Farmakologikoa
  - Dietetikoa

# Tratamendu farmakologikoa

- Antiazidoak:
  - Magnesio hidroxidoa ($Mg(OH)_2$). Bigarren mailako efektua diarrea da.
  - Alumino hidroxidoa ($Al(OH)_3$). Bigarren mailako efektua idorreria da.
  - Aurreko bien nahastura bigarren mailako efektuak konpentsatzeko.

# Tratamendu farmakologikoa

- Histamina-kontrako farmakoak (H2-kontrakoak):
  - HCl jarioa ↓. Bigarren mailako efektua B12ren absortzioa ↓ (faktore intrintsekoaren jarioa ↓ delako)

# Tratamendu farmakologikoa

- Kolinergikoak:
  - Esfinterra laxoegia dagonean soilik.
  - Nerbio sistema parasinpatikoaren funtzioa antzeratzen dute esfinterraren tonua $\uparrow$.
  - HCl jarioa $\uparrow$.

# Beste neurri ez-farmakologiko batzuk

- Oheburua igo
- Jan ostean ez etzan
- Afaldu eta gero gutxienez 3 ordu itxaron oheratu baino lehen...

# Tratamendu dietetikoa

- Mukosa esofagikoa oso minduta dagoenean
  - Dieta biguna edo bigun-mekanikoa
- Mukosan hobekuntzak lortu eta gero:
  - Ehundura normala, konposizioan aldaketak

# Tratamendu dietetikoa

- **Lipidoak**: **Eren % 25** (esfinter esofagikoaren tonua ↓)

↓

Arriskua bit lipodisolbagarrien gabeziak:

Elikagai giharrak A eta β-karotenoan aberatsak.

# Tratamendu dietetikoa

- Proteinak: esfinter esofagikoaren tonua ↑
  - Esne jatorrikoak > haragi jatorrikoak (ClH jarioa)

- KHO: aldaketarik gabe.

# Tratamendu dietetikoa

- **Beste neurri dietetiko batzuk:**
  - Narritagarriak ekiditea: zitrikoak, janari minak, alkohola.
  - Jariatzaileak ekiditea: alkohola, tabakoa.
  - Esfinterra erlaxatzen duten elikagaiak ekiditea:kafea, txokolatea, menta.
  - Janaria > 3 otordu, jatordu bakoitzaren bolumena txikitzeko eta, horrela, sabel presio handiak eta errefluxuaren arriskuak ekiditen dira.

# Tratamendu dietetikoa

Farmakoekin:

- Antiazidoak: burdin, kaltzio eta fosforoaren ingestioak handitu mineralen absortzioa urritzen dutelako giro alkalinoaren ondorioz.
- Antiazidoa $Mg(OH)_2$: diarrea tratatzeko neurri dietetikoak jarraituko dira
- Antiazidoa $Al(OH)_3$: idorreria tratatzeko gomendio dietetikoak.
- H2-kontrakoak: faktore intrintsekoa ↓, aho bideko $B_{12}$ren administrazioa ez da eraginkorra izango eta gabeziak agertzen direnean $B_{12}$ parenterala.